ANA PURIFICACION HELGUERA LIBANO (1, guztira 1)
LEHENDAKARIA
Sinaduraren data: 20/07/2026
HASH: bfe6a14bbd6da1dfb71516bfdafad98

EBAZPENA/RESOLUCIÓN

Espediente zk./ Expediente nº: 248/2026
Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen
Prozedura/ Procedimiento: Langileen hautaketak eta lanpostu-hornikuntza/ Selecciones de Personal y Provisiones de Puestos
Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: Bolsa temporal TAG/ AOT poltsa

Ana Helguera Libano, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakaria.

Ana Helguera Libano, Presidenta del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSAK ERATZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIA

CONVOCATORIA DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA CONSTITUCIÓN DE LAS BOLSAS DE TRABAJO DE TÉCNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL

ZUZENBIDEKO EGITATEAK ETA OINARRIAK

HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Administrazio orokorreko teknikarien bi lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesua deitzen da. Lan-poltsetako bat derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak eta funtzioak betetzeko eratuko da, eta bestea, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna eskatzen ez duten lanpostu eta eginkizunetarako.

Se convoca proceso selectivo para la constitución de dos bolsas de trabajo de Técnico/a de Administración General. Una de las bolsas se constituirá para cubrir puestos y funciones que requieran perfil lingüístico preceptivo y la otra para puestos y funciones cuyo desempeño no requiera perfil lingüístico preceptivo.

IKUSIRIK. Idazkaritza Nagusiak egindako beharrizanen memoria, Administrazio orokorreko teknikarien lan-poltsak osatzeko beharra eta premia justifikatzen dituena.

VISTO. La memoria de necesidades elaborada por la Secretaría General, que justifica la necesidad y urgencia de proceder a la constitución de las bolsas de trabajo de Técnico /a de Administración General.

IKUSIRIK. Administrazio orokorreko teknikarien lan-poltsak osatzeko deialdiaren oinarri-arauak; Idazkaritza Nagusiak oinarri horiei buruzko txostena egin du eta langileen ordezkariekin negoziatu dira.

VISTO. Las bases de la convocatoria para la constitución de las bolsas de trabajo de Técnico /a de Administración General, informadas por la Secretaría General y negociadas con la representación de personal.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026

Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 36

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 19.3.f artikuluan eta HKEEren Barne Erregimeneko Araudiaren 3.4. g) artikuluan, Osoko Bilkurak 2022/10/27an onartutakoan (2022/12/28ko EHAA, 247 zk.), xedatutakoaren arabera:

En virtud de lo dispuesto en el artículo 19.3.f de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri Kontuen Euskal Epaitegia, y en el artículo 3.4.g) del Reglamento de Régimen Interno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, aprobado por el Pleno del TVCP el 27/10/2022 (BOPV n.º 247, de 28/12/2022):

2026ko uztailaren 20a(e)ko PR/2026/72 ebazpen proposamena ikusita./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/72 de 20 de julio de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

Lehenengoa. Herri Kontuen Euskal Epaitegiko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzeko Administrazio orokorreko teknikarien bi lanpoltsa sortzeko hautaketa-prozesurako deia egitea, beharren arabera lanpostu hutsak, erreserba duten lanpostuak, aldi baterako programak eta zeregin-pilaketak aldi baterako betetzeko, deialdiaren oinarrietan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 28. artikuluan eta horrekin bat datozenetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Primero. Convocar proceso selectivo para la constitución de dos bolsas de trabajo para el nombramiento temporal como personal funcionario interino de Técnico/a de Administración General del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, para la cobertura temporal, según necesidades, de puestos vacantes, puestos con reserva, programas de carácter temporal y acumulaciones de tareas, de conformidad con lo previsto en las bases de la convocatoria y en el artículo 28 y concordantes de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Bigarrena. Deialdiaren oinarriak eta eranskinak onartzea, zeinak agiri honi erantsi baitzaizkio.

Segundo. Aprobar las bases de la convocatoria y sus anexos, que se incorporan al presente documento.

Hirugarrena. Deialdia osorik Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea eta horren laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, bai eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez zabaltzea ere.

Tercero. Disponer la publicación íntegra de la convocatoria en el tablón de anuncios de la sede electrónica del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y de un extracto de la misma en el Boletín Oficial del País Vasco, así como su difusión a través de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

ERREKURTSOAK/ALEGAZIOAK/ RECURSOS/ALEGACIONES

Administrazio bidean behin betikoa ez den Ebazpen horren aurka ERREGUZKO Administrazio Errekurtsoa aurkeztu ahal izango

Contra dicha resolución, que no es definitiva en vía administrativa, podrá(n) interponer Recurso Administrativo de SÚPLICA ante el Pleno del

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026

Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 36

du(te) Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkuraren aurrean; errekurtsoa aurkezteko epea jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el plazo de 1 mes, que se contará desde el día siguiente al de la fecha de recepción de la presente notificación. Transcurrido dicho plazo sin haberse interpuesto el recurso, la resolución será firme a todos los efectos.

Hori guztia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 27.2.b) artikuluan eta haren Erregelamenduaren 5.5n) eta 6. artikuluetan (2022/12/28ko EHAA, 247. zk.) ezarritakoa betez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan gora jotzeko administrazio-errekurtsoetarako ezarritako araudiarekin bat etorriz, eta egoki iritzitako beste zeinahi ekintza edo errekurtso aurkezteko eragozpenik izan gabe.

Todo ello, conforme a lo establecido en el artículo 27.2.b) de la Ley 1/1988 de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y artículos 5.5n) y 6 de su Reglamento (BOPV nº 247 de 28/12/2022), en concordancia con la regulación que los artículos 121,122 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas establecen para el recurso administrativo de alzada y, sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoan adierazitako datan

En Vitoria-Gasteiz, en la fecha indicada en la firma electrónica

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026

Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 36

I. ERANSKINA

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAN ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN BI LAN-POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAN BURU EGINGO DUTEN OINARRI-ARAUAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da funtzionarioek aldi baterako betetzeko bi lan-poltsa sortzea, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko Administrazio Orokorreko Teknikariaren lanpostuari dagozkion zereginak aldi baterako betetzeko, eta zehazki, langileen eta, oro har, enplegu publikoaren kudeaketa, nomina eta gizarte-aseguruak izapidetzea, administrazio-kudeaketa orokorra, administrazio elektronikoa, erregistroaren kudeaketa, artxiboa, espedienteen kudeaketa eta jarraipena oro har, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduerarako beharrezkoak diren antzeko edozein eginkizun edo eginkizun baliokide ere.

Hautagaiek bete beharreko funtzioak eta zereginak A taldekoak izango dira, A1/A2 azpitaldekoak, eta 24. destino-osagarria izango dute. Hala ere, deialdi honen bidez aldi baterako betetzekoa den lanpostua behin betiko balorazioa finkatzeko prozesuan dago, eta balorazio hori lanpostua bete aurretik izango da eraginkorra.

Lan-poltsetako bat derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak eta funtzioak betetzeko eratuko da, eta bestea, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna eskatzen ez duten lanpostu eta eginkizunetarako.

Bigarrena. Betetzeko araubidea

Lanpostuak betetzeko arrazoiak honako hauek izan daitezke: lanpostu horien titularrak aldi baterako absente daudelako lanpostu hutsak behin-behinean bete behar izatea, lanpostu horiek jabetzan bete arte; eta aldi baterako programetako zereginak betetzeko, edo zereginak pilatu izateagatik lanpostua bete behar izatea.

Lanpostua aldi baterako betetzea Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren egoitzan, Gasteizen, gauzatuko da.

Hautagaien izendapena, kasuak kasu, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 28. artikuluak aurreikusitako zeinahi moldetan egingo da.

Izendapenak A taldekoak, A1/A2 azpitaldekoak, izango dira, beharraren arabera. Baldintzei eta bete beharreko zereginei buruzko informazioa behin premia eta eskaintza sortzen denean jakinaraziko zaie hautagaiei.

HKEEk ofizioz formalizatuko du bitartekotasun-harremanaren amaiera, honako arrazoi hauetako edozein suertatuz gero:
a) Karrerako funtzionarioek legez ezarritako edozein prozeduraren bidez lanpostu hutsa modu arautuan betetzen dutenean.
b) Antolamendu-arrazoiengatik, esleitutako lanpostua ezabatu edo amortizatu behar denean.
c) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzeagatik.

Nolanahi ere, bitarteko funtzionarioa izendatu eta hiru urtera amaituko da bitarteko lan-harremana, salbu eta izendapenaren arrazoia lanpostuen titularrak aldi baterako absente izatea izan bada.

Hirugarrena. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026

Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 36

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, interesdunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, zeinak beteko baitira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta hala eutsi beharko diete lan-poltsak eratu arte eta, hala badagokio, deialdia egin arte:

a) Nazionalitatea: Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estatu kideren batekoa, Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 72. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Gaitasuna: administrazio Orokorreko Teknikarien lanpostuei esleitutako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) Adina: hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Gaikuntza: diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial irmoaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutua edo berezia ez izatea.

e) Titulazioa: Goi mailako unibertsitate-titulua izatea Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan, Ekonomiako Graduan edo Zuzenbideko Graduan edo titulu ofizial baliokidea, behar bezala egiaztatuta.

f) Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren baliozkotzea edo homologazioa egiaztatu beharko dute. Baldintza hori ez zaie aplikatuko Europar Batasuneko zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen eremuan lanbide-kualifikazioaren aitorpena eskuratu duten izangaiei.

g) Ezin izango dute parte hartu lan-poltsaren -zeinetara sartu nahi baitute- titulazio-talde berekoak diren HKEEko karrerako funtzionarioek.

h) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak eta funtzioak betetzeko lan-poltsan parte hartu ahal izateko, eskatutako hizkuntza-eskakizuna izatea egiaztatu beharko da.

Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten izangaiek bi lan-poltsetan parte hartu ahal izango dute (hizkuntza-eskakizun derrigortasunduna zein derrigortasunik gabea dutenetan). Alde bakarra euskararen ezagutza baloratzean datza. Nahitaezko lan-poltsarako ez da baloratuko, eta nahitaezkoa ez den lan-poltsarako baloratuko da, **II. eranskinean** jasotako merezimenduen baremoan aurreikusitakoaren arabera.

<u>Laugarrena. Eskabideak aurkeztea</u>.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egunekoa izango da, 2026ko uztailaren 28tik abuztuaren 11ra, biak barne.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko, bi izapide egin beharko dira, **nahitaezkoak eta paraleloak**:

1.- **Eskaera https://tvcphkee.convoca.online/ estekaren bidez** aurkeztuko da, eredu ofiziala datu, merezimendu, zinpeko aitorpen eta erantsitako dokumentazio guztiarekin beteta. Hori izango da hautagaia baloratzeko erreferentziazko dokumentua, **III. eranskineko** ereduak jasotzen duen moduan; eskaera.orrian SMSetarako telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat adieraziko da.

Eskabide horrekin batera, hirugarren oinarri-arauan zehaztutako dokumentazioaren kopia eskaneatu bat aurkeztu beharko da, prozesuan parte hartzeko baldintzak egiaztatu eta

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 36

alegatutako merezimenduen egiaztagiriak jasoko dituena, eta zinpeko erantzukizunpeko adierazpen bat, baremoaren arabera alegatutako merezimenduak zehaztuaz, batzordeak baloratzeko. Merezimenduak zenbatzeko data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Hautagaiaren nortasuna egiaztatzen duen agiria. (NANa)

.- Deialdian eskatutako titulu akademikoaren eta merezimendu gisa aurkeztutako titulazioen egiaztagiria.

.- Merezimendu gisa alegatutako esperientzia eta betetako eginkizunak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.

.- Merezimendu gisa alegatutako formakuntzaren ziurtagiriak.

.- Euskararen ezagutza egiaztatzen duten ziurtagiriak.

2.-HKEEren egoitza elektronikoan eskabidea. HKEEren erregistroan jasota gera dadin eta sarrera emateko, hautagaiak, aurreko atalean aipatutako lehen eskaera egin ondoren, HKEEren egoitza elektronikoan sartu beharko du, https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/ eta «LAN-POLTSETARAKO HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA» izapidea aurkeztu. Bigarren izapide horretan ez da dokumentazio gehigarririk erantsi behar. Parte hartzeko eskabidearen eredu-orria **IV. eranskinean** dago jasota.

Bi eskabideak bat ez badatoz, **lehenengo eskaera lehenetsiko da, https://tvcphkee.convoca.online/webgunean egina**, betiere erregistro-instantziak hautagaiak prozesuan parte hartu nahi duela argi eta garbi identifikatzeko aukera ematen badu.

Jatorrizko dokumentazioa edo kopia autentikoa plaza betetzeko deia egiten denean aurkeztu beharko dira. Zinpeko adierazpenaren eta deiaren unean aurkeztutako dokumentazioaren artean desadostasunak badaude, lan-poltsatik kanpo geratuko da izangaia berehala, bestelako erantzukizunak izatea eragotzi gabe.

Bosgarrena. Balorazio Batzordea

Batzordeak lau kide izango ditu: batzordeburua, idazkaria eta bi batzordekide. Horien artean, IVAPek proposatutako pertsona bat egon ahal izango da, eta kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Nagusiki, osaera teknikoa izango du, espezialitate-printzipioaren arabera: kide guztiak zerbitzu aktiboan dauden karrerako funtzionarioak izango dira, eta eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta, gutxienez, erdiak deialdiaren ezagutza-arlo berekoak izango dira.

Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da (sexu bakoitzetik gutxienez % 40). Titularren eta ordezkoen izenen zerrenda behin betiko onartuen/baztertuen zerrendekin batera argitaratuko da, Lehendakaritzaren ebazpen bidez izendatu ondoren.

Batzordeak aholkulari espezializatuen laguntza eskatu ahal izango du, nor bere espezialitate teknikora mugatuta. Kideek eta aholkulariek zerbitzuagatiko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Lehendakaritzak prozesua koordinatu eta berdinketak ebatziko ditu, kalitatezko botoarekin. Batzordeak erabakiak hartuko ditu prozesua zuzen gauzatzeko, oinarriak interpretatzeko eta gorabeherak ebazteko. Guztiek bermatuko dute izangaien konfidentzialtasuna, intimitatea eta datuen babesa.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 36

Seigarrena. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, HKEEko Lehendakaritzak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda https://tvcphkee.convoca.online helbidean, egoitza elektronikoan eta iragarki-tauletan argitaratzeko aginduko du, baztertzeko arrazoiak adierazita.

Izangaiek bost egun baliodun izango dituzte, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko.

Horiek ebatzitakoan, Lehendakaritzaren Ebazpen bidez argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, Balorazio-batzordea osatu dutenen izenekin batera (titularrak eta ordezkoak).

Zazpigarrena. Behin-behineko balorazioa eta behin betiko zerrenda

Onartuen/baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, Ebaluazio Batzordeak merezimenduen behin-behineko balorazioa egingo du, **II. eranskinean** zehaztutakoaren arabera, eta behin-behineko kalifikazioen bi zerrenda argitaratuko ditu: bata derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lan-poltsarako eta bestea derrigortasunik gabeko lan-poltsarako.

Izangaiek bost egun baliodun izango dituzte, Batzordearen ebazpena argitaratzen denetik aurrera, kalifikazioei buruzko erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, Batzordeak lan-poltsen behin betiko zerrendak onartuko ditu, puntuazioaren araberako hurrenkeran, eta https://tvcphkee.convoca.online/ helbidean eta HKEEren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko dira.

Prozeduran zehar izangairen batek baldintzak betetzen ez dituela ikusten bada, baztertu egingo da, entzunaldia egin ondoren, eta berehala jakinaraziko zaio HKEEko Lehendakaritzari.

Zortzigarrena. Lan-poltsak onartzea

Erreklamazioak ebatzi ondoren, Batzordeak HKEEko Lehendakaritzari helaraziko dizkio lan-poltsen behin betiko zerrendak (puntuazioaren araberako hurrenkeran), eta horiek zehaztuko dute etorkizuneko deialdien lehentasun-hurrenkera.

Lehendakaritzak lan-poltsak eratzea onartzeko Ebazpena emango du, eta egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan argitaratuko da. Ebazpen hori deiak egiteko oinarri izango da.

Berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko hurrengo oinarriko irizpideak aplikatuko dira.

Bederatzigarrena. Berdinketa hausteko irizpideak

Berdinketarik egonez gero, irizpide hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

- 1. Lanbide-esperientzian puntuazio handiena.
- 2. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizun altuena.
- 3. Prestakuntzan/titulazioetan puntuaziorik handiena.
- 4. Berdinketak bere horretan badirau, Balorazio Batzordeak egindako zozketa publiko bidez ebatziko da, eta horren berri dagokion aktan jasoko da.

Hamargarrena. Gorabeherak eta aurkaratzeak

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026

Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 36

Ebaluazio-batzordeak ahalmena izango du zalantzak argitzeko, hautaketa-prozesua behar bezala egiteko erabakiak hartzeko eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian gorabeherak ebazteko, betiere araudiaren aurkakoak ez badira.

Deialdia, oinarriak eta eratorritako egintzak HKEEren Osoko Bilkuraren aurrean erregu-errekurtso bidez aurkaratu ahal izango dira, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 27.2b) artikuluan eta haren Erregelamenduaren 5.5n) eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera (2022ko abenduaren 28ko EHAA, 247. zk.). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluek gora jotzeko administrazio-errekurtsoari dagokionez ezartzen duten erregulazioarekin bat etorrita.

Hamaikagarrena. Lan-poltsatik izendapenak egiteko betekizunak

Lanpostu bat eskuratzeko, lan-poltsetako pertsonek lanpostuaren/programaren/zereginen baldintza espezifiko guztiak bete beharko dituzte (titulazioa, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna, etab.). Izendapenaren aurretik, honako hauek aurkeztuko dituzte:

- Oinarrietan eskatutako jatorrizko dokumentazioa, betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituena.

- Zinpeko aitorpena, adierazteko ez daudela inongo administrazio publikotatik diziplinaz bereizita, ez eta funtzio publikoetarako desgaituta ere, eta, gainera, bateraezintasun-deklarazioa.

V. eranskinean zehazten dira lan-poltsak kudeatzeko eta lan-poltsetan sartzeko arauak.

Hamabigarrena. Datuen babesa

Deialdian eskatutako datu pertsonal guztiak jasotzen dituzten eskabideak baino ez dira onartuko. Datu horiek ezinbestekoak dira prozesua kudeatzeko, eta ez dute berariazko baimenik behar, lege-betebeharrak eta funtzio publikoak betetzean oinarritzen baita tratamendua.
Hautagaiek konpromisoa hartzen dute prozesu osoan beren datu pertsonalak eguneratuta edukitzeko.
Onartuen, baztertuen, emaitzen edo deialdien zerrendak beharrezkoak diren gutxieneko datuetara mugatuko dira (izen-abizenak eta NANaren lau zifra, justifikatzen bada), eta prozesuari buruzko informazioa (baremazioa, puntuazioak, azken emaitzak, etab.) interesdunentzat bakarrik egongo da eskuragarri, bitarteko elektroniko seguruen bidez, dela egoitza elektronikoaren dela hautagaiaren atariaren bidez. Zerrenda horiek klausula bat izango dute ohartarazteko zerrendok datu pertsonalak dituztela, datuen babesaren arloko egungo legeria betetzen dutela eta haien helburu bakarra dela publikotasuna ematea eta, hala badagokio, izangaiei jakinaraztea. Orobat, informaziozko paragrafo bat gehituko zaie, adieraziaz zerrenda horietarako irispide publikorik ez dagoela eta ezingo direla ez osorik, ez zatika erreproduzitu; ezta informazioa berreskuratzeko inongo sistema bidez eskualdatu ez erregistratu ere, eraginpekoen euren baimenik gabe.
Hautagaiei egindako telefono-deiak, elkarrizketak eta ahozko probak kontrol- eta gardentasun-helburuekin grabatu ahal izango dira, betiere aldez aurretik horren berri ematen bazaie hautagaiari eta balorazio-batzordeko kideei.
Hautagai-zerrendak osatzen dituen zerrendaren kudeaketan parte hartzen duten HKEEko langileek konfidentzialtasun-betebeharra izango dute lan-poltsen kudeaketan eskura ditzaketen datu pertsonalen informazioari dagokionez.

2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra eta aplikatu beharreko araudia betez, parte-hartzaileen datu pertsonalak «*Langileak hautatzeko prozesuak*» jardueran sartuko dira.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 36

Datu pertsonalen identifikazioa edo aipamena	**LANGILEAK HAUTATZEKO PROZESUAK**
Tratamenduaren organo kudeatzailea identifikatzea	**Idazkaritza Nagusia**
Tratamenduaren arduradunaren identifikazioa eta harremanetarako datuak	**HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA** **http://tvcp.eus** **Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 69** **01008 Vitoria-Gasteiz**
Datuak babesteko ordezkaria identifikatzea eta harremanetarako datuak	Datuak babesteko ordezkaria Posta elektronikoa: dpd@tvcp.eus
Tratamenduaren helburuak	**Langileen hautaketa-prozesuak, lehiaketak eta oposaketak, eta lanpostuak betetzeko prozesua kudeatzea.**
Tratamenduaren zilegitasuna (oinarri juridikoa)	Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: 6.1.e) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari eskuordetutako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizun bat betetzeko • 1/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia
Pertsona interesdunen kategorien deskribapena	**Herri Kontuen Euskal Epaitegiko langileen hautaketa-prozesuetako partaideak**
Datu pertsonalen kategoriak	▪ Identifikatzaileak: NAN/IFZ, izen-abizenak, sinadura, helbidea, telefonoa, Gizarte Segurantzako zenbakia, helbide elektronikoa. ▪ Ezaugarri pertsonalak: jaioteguna, sexua, egoera zibila, nazionalitatea. ▪ Enpleguaren xehetasunak: kategoria, lanpostua, lan-harremana. ▪ Akademikoak eta profesionalak: prestakuntza, titulazioak eta ziurtagiriak, lanbide-esperientzia, eskuratutako puntuazioa, zerrendako hurrenkera-zenbakia, curriculumeko beste merezimendu batzuk. ▪ Bereziki babestuak: Osasuna.
Hartzekodunen kategoriak, zeini datu pertsonalak jakinaraz baitakizkieke.	▪ Hautagaien datuak, betekizunak eta merezimenduak zein erakundetan egiazta daitezkeen. ▪ Hautaketa-prozesuak kontrolatu behar dituzten erakundeak (adibidez, Langileen Batzordea).
Datuak ezabatzeko aurreikusitako epeak	Datuak gordeko dira zuten helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen balizko

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 36

erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboran.

Segurtasuneko neurri teknikoen eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra	Informazio-sistemak kategorizatzea eta segurtasun-neurriak aplikatzea, Segurtasun Eskema Nazionalean xedatutakoaren arabera.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026

Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 36

ANEXO I

BASES QUE REGIRÁN EL PROCESO SELECTIVO PARA LA CREACIÓN DE BOLSAS DE TRABAJO DE TÉCNICO DE ADMINISTRACIÓN GENERAL EN EL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS

Primera. Objeto de la convocatoria

Es objeto de la presente convocatoria la creación de dos bolsas de trabajo para la cobertura temporal de personal funcionario para realizar tareas y funciones propias del puesto de Técnico/a de Administración General en el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, relacionadas con funciones de gestión de personal y empleo público en general, tramitación de nómina y seguros sociales, gestión administrativa en general, administración electrónica, gestión de registro, archivo, atención y seguimiento de expedientes en general, así como cualesquiera otras funciones análogas o equivalentes que resulten necesarias para la actividad del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Las funciones y tareas a desempeñar por las personas candidatas estarán encuadradas en el Grupo A, subgrupo A1/A2, con nivel de complemento de destino 24, si bien el puesto objeto de la posible cobertura temporal a través de la presente convocatoria se encuentra en proceso de consolidación técnica de su valoración definitiva, la cual será efectiva antes de su cobertura.

Una de las bolsas se constituirá para cubrir puestos y funciones que requieran perfil lingüístico 3 preceptivo y la otra para puestos y funciones cuyo desempeño no requiera perfil lingüístico 3 preceptivo.

Segunda. Régimen de coberturas

La cobertura podrá venir dada por necesidades motivadas por la cobertura interina de vacantes hasta su provisión en propiedad, por la ausencia temporal de las personas titulares de los puestos, así como por nombramientos para atender tareas referidas a programas de carácter temporal o para cobertura por acumulación de tareas.

El desempeño temporal del puesto se desarrollará en la sede del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en Vitoria-Gasteiz.

El nombramiento de las personas candidatas, según el caso, se realizará en cualquiera de las modalidades previstas en el artículo 28 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Los nombramientos estarán referidos al Grupo A, subgrupo A1/A2, en función de la necesidad. La información tanto de las condiciones como de las tareas a cubrir será trasladada a las personas candidatas una vez planteada la necesidad y la oferta.

El TVCP formalizará de oficio la finalización de la relación de interinidad por cualquiera de las siguientes causas:
a) Por la cobertura reglada del puesto vacante por personal funcionario/a de carrera a través de cualquiera de los procedimientos legalmente establecidos.
b) Por razones organizativas que den lugar a la supresión o a la amortización del puesto asignado.
c) Por la finalización de la causa que dio lugar a su nombramiento.

En todo caso, transcurridos tres años desde el nombramiento del personal funcionario interino se producirá el fin de la relación de interinidad, salvo en el supuesto en que el nombramiento haya venido dado por la ausencia temporal de las personas titulares de los puestos.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 36

Tercera. Requisitos para participar en el proceso selectivo

Para poder tomar parte en el proceso selectivo, las personas interesadas deberán cumplir los siguientes requisitos, que habrán de poseerse en el momento en que finalice el plazo de presentación de solicitudes y mantenerse hasta la constitución de las bolsas de trabajo y en su caso hasta el llamamiento:

a) Nacionalidad: tener la nacionalidad española o ser nacional de algún Estado miembro de la Unión Europea, según lo previsto en el artículo 72 de la Ley 11/2022 de Empleo Público Vasco.

b) Capacidad: poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas encomendadas a los puestos de Técnico/a de Administración General.

c) Edad: tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.

d) Habilitación: no haber sido separadas, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios del Estado o de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial firme.

e) Titulación: estar en posesión del título universitario superior de Grado en Administración y Dirección de Empresas, Grado en Economía o Grado en Derecho, o titulación oficial equivalente, debidamente acreditada.

f) Las personas aspirantes con titulación obtenida en el extranjero deberán acreditar la correspondiente convalidación u homologación del título. Este requisito no será de aplicación a las personas aspirantes que hubieran obtenido el reconocimiento de su cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de derecho de la Unión Europea.

g) No podrá tomar parte el personal funcionario de carrera del TVCP adscrito al mismo grupo de titulación que la de la bolsa de trabajo a la que pretenda acceder.

h) Para poder formar parte de la bolsa destinada a cubrir puestos y funciones con perfil lingüístico preceptivo se deberá acreditar el perfil lingüístico exigido.

Los candidatos que cuenten con el perfil lingüístico preceptivo podrán participar en ambas bolsas (con y sin perfil lingüístico preceptivo). La única diferencia radica en la valoración del conocimiento del euskera que se aplicará para la bolsa no preceptiva y no se valorará para la preceptiva, según lo previsto en el baremo de méritos que recoge el **Anexo II.**

Cuarta. Presentación de solicitudes.

El plazo para presentar solicitudes será de **10 días, desde el 28 de julio hasta el 11 de agosto de 2026** incluidos.

La participación en el proceso selectivo se formalizará mediante **dos trámites obligatorios y paralelos**:

1.- **Solicitud a través del enlace** https://tvcphkee.convoca.online/ cumplimentando el modelo oficial con todos los datos, méritos, declaración jurada y documentación adjunta. Este será el documento de referencia para la valoración del candidato, tal y como recoge el modelo del **Anexo III**, haciendo constar en la solicitud un número de teléfono para SMS y una dirección de correo electrónico.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 36

A esta solicitud, deberá acompañarse copia escaneada de la documentación referida en la base tercera, que acredite los requisitos de participación en el proceso y la documentación acreditativa de los méritos alegados y declaración jurada responsable detallando los méritos alegados conforme al baremo, para valoración por la comisión. La fecha de cómputo de méritos será la de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La documentación que se deberá adjuntar a esta solicitud será la siguiente:

.- Documento acreditativo de la identidad del candidato. (DNI)

.- Documento acreditativo del Titulo académico requerido en la convocatoria y de las Titulaciones aportadas como mérito.

.- Certificados que acrediten la experiencia y funciones desempeñadas alegadas como mérito.

.- Certificados acreditativos de la Formación alegada como mérito.

.- Certificados acreditativos del conocimiento de euskera.

2.- Solicitud en sede electrónica del TVCP A efectos de constancia y entrada en el Registro del TVCP, el candidato, tras haber realizado la primera solicitud, referida en el apartado anterior, deberá acceder a la Sede Electrónica del TVCP https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/ y presentar el trámite "Solicitud de participación en proceso selectivo para bolsas de trabajo" con sus datos identificativos. Este segundo trámite no requiere adjuntar documentación adicional. El modelo de solicitud de participación se recoge en el **Anexo IV**

En caso de discrepancia entre ambas presentaciones, prevalecerá la primera solicitud, realizada en el sitio https://tvcphkee.convoca.online/, siempre que la instancia registral permita identificar inequívocamente la voluntad del candidato de participar en el proceso.

La documentación original o compulsada deberá aportarse al llamamiento para cobertura de plaza. Las discrepancias entre la declaración jurada y la documentación aportada en el momento del llamamiento supondrán exclusión inmediata de la bolsa, sin perjuicio de otras responsabilidades a que hubiere lugar.

Quinta. Comisión de valoración

La Comisión estará integrada por cuatro personas, una Presidencia, una Secretaría y dos Vocalías, entre las que podrá figurar una persona propuesta por el IVAP, todos los miembros tendrán voz y voto. Su composición será predominantemente técnica, determinada por el principio de especialidad: todos los miembros serán funcionarios de carrera en servicio activo y deberán poseer titulación de igual o superior nivel académico a la exigida, y al menos la mitad corresponderá al mismo área de conocimientos de la convocatoria.

Se garantizará representación equilibrada de mujeres y hombres (mínimo 40% cada sexo). La relación nominal de titulares y suplentes se publicará junto con las listas de admitidos/excluidos definitivas, previa designación por Resolución de Presidencia.

La Comisión podrá recabar colaboración de asesores/as especializados, limitados a sus especialidades técnicas. Tanto miembros como asesores tendrán derecho a las indemnizaciones por razón del servicio conforme a la normativa vigente.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 36

La Presidencia coordinará el proceso y resolverá empates con voto de calidad. La Comisión adoptará acuerdos para su buen orden, interpretación de bases y resolución de incidencias. Todos garantizarán confidencialidad, intimidad y protección de datos de los aspirantes

Sexta. Admisión de aspirantes

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Presidencia del TVCP ordenará publicar en el sitio: https://tvcphkee.convoca.online/, en la sede electrónica y tablones de anuncios la relación provisional de admitidos y excluidos, indicando las causas de exclusión.

Las personas aspirantes dispondrán de cinco días hábiles, a contar desde el día siguiente a la publicación, para formular alegaciones o reclamaciones.

Resueltas estas, mediante Resolución de Presidencia se publicará la relación definitiva de admitidos y excluidos, junto con la composición nominal de la Comisión de valoración (titulares y suplentes).

Séptima. Valoración provisional y listas definitivas

A partir de la publicación de la lista definitiva de admitidos/excluidos, la Comisión evaluadora procederá a la valoración provisional de méritos, conforme a lo establecido en el **Anexo II** y publicará dos relaciones de calificaciones provisionales: una para la bolsa con perfil lingüístico preceptivo y otra para la sin preceptividad.

Las personas candidatas dispondrán de cinco días hábiles desde la publicación de la resolución de la Comisión, para reclamaciones sobre calificaciones.

Resueltas las reclamaciones, la Comisión aprobará las listas definitivas de las bolsas, ordenadas por puntuación, que se publicarán en el sitio: https://tvcphkee.convoca.online/ y en el tablón de anuncios de la sede electrónica del TVCP.

Si durante el procedimiento se detecta que alguna persona aspirante carece de requisitos, será excluida previa audiencia, dando cuenta inmediata a la Presidencia del TVCP

Octava. Aprobación de las bolsas de trabajo

Resueltas las reclamaciones, la Comisión trasladará a la Presidencia del TVCP las listas definitivas de las bolsas (ordenadas por puntuación), que determinarán el orden de prelación de los futuros llamamientos.

La Presidencia dictará Resolución aprobando la constitución de las bolsas, que se publicará en sede electrónica y tablón de anuncios. Dicha resolución servirá de base para los llamamientos.

En caso de empate, se aplicarán los criterios de desempate de la base siguiente.

Novena. Criterios de desempate

En caso de empate se aplicarán sucesivamente los siguientes criterios:

- 1. Mayor puntuación en experiencia profesional.
- 2. Mayor perfil lingüístico acreditado.
- 3. Mayor puntuación en formación/titulaciones.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-0053 Data: 20/07/2026
Baliozkotze Kod.: 754SXX5YDY2D6L3MMTA56X6GL
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 36

- 4. Si persistiera el empate, este se resolverá mediante sorteo público realizado por la Comisión de Valoración, del que se dejará constancia en el acta correspondiente.

Décima. Incidencias e impugnaciones

La Comisión evaluadora queda facultada para resolver dudas, adoptar acuerdos para el buen orden del proceso selectivo y resolver incidencias en todo lo no previsto en estas bases, siempre que no contradigan la normativa.

La convocatoria, bases y actos derivados podrán impugnarse mediante Recurso de súplica ante el Pleno del TVCP, conforme a lo establecido en el artículo 27.2b) de la Ley 1/1988 de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y artículos 5.5n) y 6 de su Reglamento (BOPV nº 247 de 28 de diciembre de 2022). En concordancia con la regulación que los artículos 121,122 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establecen para el recurso administrativo de alzada.

Undécima. Requisitos para nombramientos desde la bolsa

Para acceder a un puesto, las personas de las bolsas deberán cumplir todos los requisitos específicos del puesto/programa/tareas (titulación, perfil lingüístico preceptivo, etc.). Antes del nombramiento, aportarán:

- Documentación original exigida en las bases, acreditativa de los requisitos y méritos alegados.
- Declaración jurada de no estar separadas disciplinariamente de ninguna Administración Pública ni inhabilitadas para funciones públicas, además de declaración de incompatibilidad .

Las normas de gestión de bolsas e incorporación se detallan en el **Anexo V**.

Duodécima. Protección de datos

Solo se admitirán solicitudes que incluyan todos los datos personales exigidos en la convocatoria. Estos datos son imprescindibles para gestionar el proceso y no necesitan consentimiento expreso ya que el tratamiento se basa en el cumplimiento de obligaciones legales y funciones públicas.
Los candidatos se comprometen a mantener actualizados sus datos personales durante todo el proceso.
